

PRENTSA OHARRA 2019.05.21

Eneka Fernandez eta Raisa Alava artistak, AIR Wro programan hautatuak

- Bi artistek Poloniako Wroclaw hirian auto-edizioarekin lotutako proiektu bana gauzatuko dute.

- Fernandezek sei asteko egonaldia egingo du, eta Alavak *study visit* bat.

Seigarren urtez, bi euskal artistak proiektu bana garatuko dute Poloniako Wroclaw hirian, AIR Wro (Artists in Residence Programme) programaren baitako udako egonaldietan. Hautatutako artista horiek Eneka Fernandez eta Raisa Alava dira, eta aurtengo programaren gaiarekin lotuta, auto-edizioan oinarritutako ekintza kultural bana burutuko dute biek.

Lehenengoak sei asteko egonaldi artistikoa egingo du Wroclawn, eta bere proiektuaren helburua hiriko auto-edizio eszenaren mapaketa bat egin, horien arazoak identifikatu eta irtenbideak proposatzeko topaketa bat antolatzea izango da. Bigarrenak, aldiz, hogei eguneko *study visit* edo ikerketarako bisita bat egingo du Poloniako hirira; eta bisita horren barruan, tailer bat emango du bi egunez.

Polonia eta Euskal Herriaren arteko elkarlana 2014. urtean hasi zen, Donostia eta Wroclaw 2016an Europako Kultur Hiriburu izateko prestaketak medio. Ordutik 13 euskal artistak egin dute egonaldia Wroclawn AIR Wro programaren bidez. Culture Zone Wroclaw erakundeak kudeatzen du programa gaur egun, eta Etxepare Euskal Institutuak Donostia 2016ren legatu bezala eman die jarraipena egonaldi hauei. Horrela, euskal artistei euren prestakuntzarako eta euren lanaren zabalkunderako

plataforma eskaintzen die Institutuak eta mugikortasuna, kultura arteko elkarrizketa eta nazioarteko elkarlana sustatzen ditu.

Artists in Residence Programme Wroclaw

AIR Wro programaren xedea da kultura eta artearen alor ezberdinetan jarduten duten sortzaile europarren lana lagundu eta sustatzea; beti ere, euren lana hiri-identitatea eta kultura kontzeptuen inguruan burutzen badute. Izan ere, egonaldi artistiko hauen azken helburua hiri modernoaren arazoan konponbiderako praktika egokiak aurkitzea eta bitartekaritza sustatzea baita.

Aurtengo udako egonaldien gaiari *Self-publishing laboratory* edo *Auto-edizioaren laborategia* izena jarri diote. Auto-edizioa gero eta praktika zabalagoa da europar hiri modernoetan; eta guztiz lotua dago diseinu grafikoan, narrazio alternatiboan edota D.I.Y (*Do It Yourself*, edo Egin Ezazu Zuk) proiektuetan aritzen diren artistekin. Interneten sarbide masiboak, gainera, plataforma paregabea eskaini die diseinatzaile eta artista horiei, haiek sortutako lanak euren kabuz zabaldu ahal izateko. Egun, kultura independentearen eta mugimendu sozialen tresna garrantzitsuenetarikoa da auto-edizioa.

Laborategi honek, Alava eta Fernandezek proiektuez gain, Dresdengo Irène Mélix artistaren egonaldi bat ere hartuko du. Honek, hiriko LGBTIQ komunitateak eta euren historia aztertuko ditu. Ikerketa guztiek, amaieran, entzulegoaren aurrean aurkezpen bat egitea eskatuko dute, eta ekintza horiek denak Tamka Art-Hub & Club gunean egingo dira; hain zuzen ere, Wroclawko kultura independentearen puntu esanguratsu batean.

Hautatutako artistak eta landuko dituzten proiektuak:

ENEKA FERNANDEZ



Proiektuaren deskribapena

Eneka Fernandezaren egonaldiaren helburua da hiriko auto-edizio eszenaren erregistro edo mapaketa bat egitea. Proiektuaren lehen fasean, auto-edizioaren munduan dauden agente guztiak identifikatuko ditu Fernandezek: autoreak, editoreak, inprimategiak, diseinatzaileak, liburu-dendak, bildumak etab.; baita horien guztien kokapena eta kontaktua lortu ere, etorkizun batean elkarren berri izateko helburuarekin. Prozesuak ikerketa fisiko eta digital sakona eskatuko du, auto-edizioarekin lotutako pertsonekin elkarrizketak eginez edota liburutegi, liburu-denda, arte eskola edota estudioetara bisitak eginez. Proiektuaren lehen fasea amaitzeko, emaitza guztiak mapa fisiko eta digital batean irudikatuko ditu artistak; eta, horrez gain,

ikerketaren emaitza ekintza ireki batean partekatuko da, lana jasotzen duen argitalpena bertan erakutsiz.

Proiektuaren bigarren fasean, mapaketan identifikatutako agente eta sortzaileen arteko topaketa antolatzeko asmoa du Fernandezek, “Autoedizioen klinika” izena eman dion ekintza batean. Euren argitalpen-prozesuetan zalantza edota arazoak topatu dituzten pertsonak hartuko lukete parte bertan, eta topaketak euren arazoei irtenbideak emateko eta, elkartrukearen bitartez, proiektuak aberasteko helburua izango du. Elkartruke horrek bere egonalditik haratagoko ibilbidea izan lezakeela aitortzen du Fernandezek; helburua baita formatu horri jarraipena ematea, bertako argitalpen panoramari ekarpena eginez.

Eneka Fernandezek egonaldiak sei asteko iraupena izango du, ekainaren 3tik uztailaren 14ra zehazki. Jendaurreko ekintzak, mapaketaren aurkezpena eta topaketa, uztailaren 12tik 14ra bitarte egingo dira.


Biografia

Artearen Historian lizentziaduna da Eneka Fernandez (Pasaia, 1977), eta Erakusketa Formatu Berrien Diseinu eta Zuzendaritza masterra egin zuen Bartzelonan. Hiri horretan bertan, La Central liburu-dendan lanean zebilela, argitalpen independenteekiko zaletasuna piztu zitzaion. Fanzineak aukeratzen, argazki-liburuak deskubritzen eta autoreak ezagutzen pasa zituen urteek Fanzinant plataforma, fanzineen hedapena eta banaketa egiteko proiektua, sortzera bultzatu dute. Liman bizi izan zen bitartean autoedizioen eta artista-argitalpenen lantegiak dinamizatu zituen eta Sao Paulo eta Buenos Airesen hainbat jaialdi eta topaketetan hartu zuen parte.

Gaur egun Tabakalerako sorkuntza liburutegiko, UBIK-eko, programa koordinatzailea da. Berriki *Terranova* argitaratu du, bere aitak, itsas-mekanikoa, ateratako icebergen argazkiekin osatutako proiektu pertsonala; itsas-bizitzari omenaldi bat.

RAISA ALAVA

Proiektuaren deskribapena



Raisa Alavak hiru asteko ikerketa-bisita bat egingo du Wroclawra, ekainaren 3tik 23ra. Bere proiektuak, batez ere, komikigintzarekin izango du zerikusia, auto-edizioaren munduaren baitan. Bisitaren barruan, ekainaren 15ean eta 16an komikigintzarekin lotutako tailer ireki bana egingo du, "Do it Yourself! Do it Basque way!" izenarekin, Culture Zone Wroclaw erakundeak horretarako aukeratutako lekuan. Bertan 14 urtetik gorako edozeinek eman ahal izango du izena, eta komikiaren aspektu ezberdinak landuko dira, besteak beste, marrazketa eta gidoi teknika ezberdinak.

Horrez gain, norberak komiki bat sortu eta argitaratzeko tresnak aurkeztu, azaldu eta garatuko ditu Alavak tailer horretan parte hartzen dutenekin, nahi duen edonork komiki bat argitaratu dezakeela erakusteko asmoz.

Biografia

Raisa Alava (Zuhatza, Aiara, 1990) Arte Ederretako lizentziaduna da. Bere ikasketei Bartzelonan eman zien jarraipena, Elisava eskolan Ilustrazio eta Komikigintza masterra eginez eta, horrez gain, zeramikan formakuntza eskuratu zuen. Gaur egun, komikigintza eta zeramikaz gain, grabatuak eta ekoizpen grafikoa ere jorratzen ditu Alavak. Bere proposamen artistikoek eraberritze-lengoaia bat dute, proportzio eta

konposizioen hierarkia eta kodigo tradizionalengandik alde egiten duena. Elementuen gehiegikeriarekin lan egiten du, eta bere irudiek irakurketa librea iradokitzen dute.

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileak plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus